



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Irakitzten ari gara



Londresi duela bost hilabete itzali zitzaion arima pizten hasi zaio azken egunetan. Tolga AKMEN | AFP

Bost hilabete luzeren ostean, Londres ireki da berriro ere aste honetan, eta udaberriko eguzkiaren indarrarekin batera, itzali zitzaion arima pizten hasi zaio; kaleetan dabilen jendearen aldar-tean nabari da aldaketa; ile apaindegien kanpoan dauden ilara luzee-tako murmurioan optimismoa atzematen da; terrazadun tabernetako giroak bizipoza ematen du (maiatzaren erdira arte erreserbak eginda daude leku askotan).

Hasiera baino ez da, ibilbide luze batean lehenengo urratsa. Zeruan apenas ikusten da hegazkinik; kultura sektoreak paralizatuta jarraitzen du, zinema eta museoek itxita jarraituko dute maiatza arte (inkoherentzia izugarria); taberna eta jatetxeen ia erdiek ezin izan dituzte ateak ireki, terraza edo kanpoko espaziorik ez dutelako; jaialdiek eta jende bilketek debekatuta jarraituko dute hainbat hilabetetan.

Beste modu batera bizitzera ohitu ginen. Noski, friboloa da egoera dramatizatzea eta kexatzen hastea. Baina benetan bizitza planoak edukitzera iritsi ginen. Paseo eta parkeez aspertuta, supermerkatu egindako bidaia zen errutina hausten zuena; kalean zure etxekoa ez zen pertsona bakar batekin ibiltzea zen “uzten” ziguten gauza bakarra, eta hareman asko sufritzen hasiak ziren. Aurretik sozializatzea bultzatu gintuen habitat hura eta metropoli handia arau berri, anbiguo eta selektiboekin transformatu zen.

Dena den, prudentzia da oraindik gailentzen den senti-
mendua. Batetik, azken hilabeteek mesfidatiago bihurtu

gaituzte; eta bestetik, egin-
dako esfortzuaren ostean,
aurrerapausoetan bakarrik
sinetsi nahi dugu; beste
konfinamendu baten pers-
pektibak izua barruraino
sartzen digu eta morala
lurpean utziko liguke. 32
milioi txerto eman direne-
an, 45 urtetik gorakoak da-
goeneko hartzen ari badira
ere, Gobernutik datorren
aholkua oraindik zuhur-
tziaz beterikoa da. Adibi-
dez, ahal duen horri etxetik
lan egiten jarraitzea go-
mendatzen zaio.

Lana egiteko modu hibridoaren kontzeptua erabat normalizatu da bulegoan eta horren definizioaren

lanketan gabilta. Askok urtebete daramate bulegora joan gabe. Ezinbestean horrek galdera asko sortu ditu eta abagune berriak azaldu dira. Hogeita bost milatik gora langile dituen enpresa batean nagoela, eskala horrek eragiten duen aniztasunarengatik, denontzat arau berdinak edo lana egiteko modu bakarra inposatzen duten teoria zaharkituetarako ez dago lekurik. Malgutasuna, moldatzearen urgentzia eta hobeto egin dezakegula sinestea oinarritzko printzipio bihurtu dira.

Gaur komunikatu batean baieztatu da inoiz ez dugula bost egunetan bulegora joan beharrik izango. Lana egiteko bi espazioetatik –etxetik eta bulegotik–, bakoitzetik hoberena aterako da. Alde batetik, birtualki gauza batzuek hobeto funtzionatzen dutela ikusi dugu; beste aldetik, kolaboraziorako, sormena sustatzeko, besteengandik ikasteko eta inprobisazioak dituen abantailetarako, aurrez aurreko harremanak eraginkorragoak direla baieztatu dugu. Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren arteko orekan parametro berriak ditugu eta bakoitzaren egoera onartzearen eta errespetatzearen garrantzia aplikatu da.

Eta amaitzeko, beste puntu garrantzitsu bat: ez daukagu galdera guztientzat erantzunik; baina mundua aldatu denez, harremanak aldatu dira, ohiturak aldatu dira eta beraz, lana egiteko moduak ere bai. Oinarrizko onarpen hori da abiapuntua. Lehengora itzultzea izugarrizko atzerapausoa litzateke. •